2021eko EUSKARA NAZIOARTEKO EGUNEKO EKITALDIAREN ANTOLAKETAREN LANAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

1. Kontratuaren xedea

2021eko Euskara Nazioarteko Eguneko ekitaldia antolatzea abenduaren 3an, asteartean, arratsaldez (19:00etan) Gasteizen.

Hauek dira kontratuaren arabera egin beharreko lanak:

- Komunikazioa: 2021eko ENEren mezu nagusiaren zehaztapena.
- Publizitatea: Egunaren aurretik egin beharreko publizitate piezen ekoizpena.
- Euskararen Nazioarteko Egunerako manifestuaren eta gonbidapenen diseinuaren proposamena.
- Ekitaldia:
    - Ekitaldiaren diseinu-proposamena, antolaketa eta koordinazioa: ekitaldiaren diseinua eta eskaleta proposatzea. Ekitaldiaren diseinua, zein gidoia genero ikuspegiarekin eginda egon beharko da, hau da, sexu estereotipoetatik aldentzen eta emakumeen presentsia aktiboa indartzen).

      Horri jarraiki, ezinbestekoa da enpresa esleipendunak Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako lan lerro estrategikoak ondo ezagutzea eta indartu nahi den esparrua ezagutzea. 2021ean HPSk azpimarratu nahi dituen eremuen artean, kirola azpimarratu ahal da. Kirol eremuan euskararen erabilera indartzeko estrateg. Ekitaldian gai nagusia kirola izan ahal delarik, beti ere hizkuntza teknologien garapenaren ikuspuntutik uztartuta.
    - Ekitaldia burutzeko, zerbitzu eta giza baliabideen proposamena. Aretoaren egokitzapena egitea eta diseinua indartzeko eraikinaren kanpo aldeko zein barruko euskarriak kontratatzea
    - Eszenografia eta aurkezlearen proposamena
    - Argazkiak (gonbidatuak, ziurtagiridunak…) eta ekitaldiaren grabazioa.
    - Ekitaldiaren inguruko komunikazio-plana zehaztea eta bideratzea.
- Bukaerako memoria (hedabideetan izandako oihartzuna…).

2. Egin beharreko lanen ezaugarriak

2.1. Ekitaldiaren aurretik

2.1.1. Adierazpena: urtero, azaroaren erdi aldera, Herri Administrazioen Koordinazio Batzordeak (HAKOBA) adierazpenaren testua adosten du. Adierazpen horretako mezua izaten da ekitaldiaren hari nagusia. Idazkia maketatu eta diseinatu behar da.

2.1.2. Gonbidapena: diseinatu. Bertaratu behar dutenei bidali beharreko gonbidapenean, oinarrizko informazioa emateaz gain (eguna, ordua, lekua,…) gutxienez jakinarazi egingo da irisgarritasuna bermatuko zaiela aniztasun funtzionala duten pertsonei, aldez aurretik ohartaraziz gero.

2.1.3. ENE aurretik egiten den publizitatea sortu. Idatzizko hedabideetan zabaltzeko eta irrati zein telebistetan emitituko diren piezak sortu.

2.2. Ekitaldia

Ekitaldia 2021eko abenduaren 3an, osteguna, izango da, Gasteizko leku publiko batean. Proposamenean aurkeztu beharko da eta gutxienik 300 pertsonentzako aforoa izan beharko du. Unean uneko osasun egoerak aforoa finkatuko da . Ekitaldia arratsaldez izango da (19:00etan), eta 60 minutuko iraupena izango du.

Ekitaldiaren xedea Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko ekitaldi publikoa antolatzea da. Kontuan hartu behar da gonbitea Eusko Jaurlaritzak beste herri erakundeekin batera luzatzen duela, Lehendakaria bertan izango dela, eta agintarien parte hartzea ere nabarmena dela. Horren ildotik, ikus daiteke ekitaldiak inplikatu desberdinak dituela (erakunde publikoak, goi-mailako agintariak, gizarte eragileak, …), guztiek behar dute bere protagonismoa eta zenbaiten kasuan baita aitorpena ere, baina denbora jakin batean lortu behar da, hau da, 60 bat minututan; Horretaz gain, dotorea izan behar da, dagokion mailari eutsiz, baina aldi berean arina. Hori horrela, eskatzen duguna da ekitaldirako proposamen egokia, arina, originala, berritzailea, dotorea eta protagonista guztiak kontuan hartuko dituena aurkeztea. Hortaz, enpresa esleipendunak kontratuaren xedea aintzat hartuz, ekitaldiaren diseinua eta gidoia proposatuko ditu, eta ekitaldiaren koordinazioaz eta antolaketa guztiaz arduratuko da, betiere Euskara Sustatzeko Zuzendaritzarekin edo zuzendaritza horrek izendatutako pertsonarekin elkarlanean.

2.2.1. Aretoa

HPSko Euskara Sustatzeko zuzendaritzak Gasteizen izango dela adierazi du. Horretaz gain, ekitaldi publikoak bilduko duen jende kopurua ikusirik, tokia egokia izan behar du. Gasteizen egon daitezkeen aukerak azterturik, toki hauek proposatzen dira:

1.- Europa Jauregia

2.- Artium museoa
3.- Principal antzokia

Enpresa esleipendunak aretoa aukeratzeaz gain, aretoaren egokitzapenak egingo ditu aurkeztutako proposamenaren arabera, eta diseinua indartzeko eraikinaren barruko zein kanpo aldeko euskarriak diseinatzeaz eta kontratatzeaz arduratuko da. Aretoaren alokairua kontratu honetatik kanpo geratzen da.

Bestalde, aretoa erreserbatzean eskainitako oinarrizko zerbitzuez gain, enpresa esleipendunak ekitaldia dagokion mailan ateratzeko behar diren gainerako azpiegitura, zerbitzu eta giza baliabideak azpikontratatuko ditu, esaterako, bestelako argiak, soinua, pantailak, arropa zaintzeko zerbitzua, azafatak, teknikariak... Ezinbesteko baldintza izango da gonbidatuekin harreman zuzena izango duten enpresa esleipenduneko langileek, azafatek, zerbitzariek eta aurkezleak esaterako, euskaraz oso ondo jakitea.

2.2.2. Eszenografia eta aurkezlea

Enpresa esleipendunak eszenografiaren eta aurkezlearen proposamena ere egingo du, bai eta bi horiek kontratatu ere. Aurkezleak esan beharreko testua enpresa esleipendunak sortu eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak gainbegiratuko du. Horretarako, ezinbestekoa izango da enpresa esleipendunak Hizkuntza Politikarako lan lerro estrategikoak ondo ezagutzea.

2.2.3. Gonbidatuak: goi-mailako agintariak

HPSk ekitaldia antolatzen duen arren, Lehendakaritzatik egiten zaie gonbitea Euskal Gizartean euskararen biziberritzeko prozesuan toki garrantzitsua hartu duten pertsonei eta erakundeei. Lehendakariak eta beste zenbait goi-mailako kargudunek hartzen dute parte ekitaldian. Horien parte-hartzea antolatzeko orduan protokolo-betebeharrak hartuko dira kontuan.

2.2.4. Argazkiak eta grabazioa

Enpresa esleipendunak argazkilari bat izango du egin beharreko argazkiak egiteko (gonbidatuak, ekitaldia..). Hurrengo egunean, argazkiak HPSko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari eskuratuko zaizkio Web orriren bidez zabaltzeko. Beste horrenbeste ekitaldiaren grabazioarekin.

2.3. Streaming bidezko transmisioa

Urte sasoi horretarako osasun egoerak nabarmen hobera egingo balu ere, ekitaldia streaming bidez emititu beharko da.

3. Enpresa esleipendunaren betebeharrak

Enpresa esleipenduna Administrazioaren izenean arituko da, eta, beraz, sekretu profesionala gordeko du. Lortutako informazioa lana ongi burutzeko besterik ez du

erabiliko, eta informazio oro Administrazioaren jabetzakoa izango da bakarrik. Ezingo da beste xederen baterako erabili, idatziz baimen esplizitua izan ezean.

Egiten diren lanak —edozein fasetan daudela ere— Administrazioaren jabetzakoak izango dira, eta ondorioz, Administrazioak edonoiz eskatu ahal izango du lanen zati bat edo lan osoa emateko.

Enpresa esleipendunak edo haren menpeko pertsonek lanaren bide ona arriskuan jartzen edo galarazten duen ekintzarik egiten badu, Administrazioak neurri zehatzak eta eraginkorrak hartzeko eskatu ahal izango dio enpresari, lana berriz ere bide onera bueltatzeko.

Enpresa esleipendunak beharrezko ekipo teknikoaz eta baliabide lagungarriez hornitu behar du lana ongi egiteko eta kontratuan adostutako epe partzial eta osoak betetzeko.

3.1. Lana lankidetzan

Enpresa esleipenduna Hizkuntza Euskara Sustatzeko Zuzendaritzarekin edo horrek izendatutako pertsonarekin batera arituko da lankidetzan, eta Zuzendaritza horren baimena beharko du erabakiak hartzeko edo aldaketak egiteko garaian.

3.2. Baimenak

Enpresa esleipendunak bere enpresa-jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimen eta lizentzia administratibo guztiak izan beharko ditu. Horrezaz gain, kontratua burutzeko beste enpresa batzuk kontratatu behar baditu, enpresa esleipenduna izango da erantzunle bakarra azpikontratatutako beste enpresa horien aurrean.

3.3. Euskararen erabilera

Ezinbestekoa izango da ekitaldia antolatzeko prozesuan eta ekitaldi-egunean bertan jendearekin (gonbidatuak) harreman zuzenak izango dituzten enpresa esleipenduneko langileek (edo horiek azpikontratatutakoek) euskaraz ondo jakitea ahoz zein idatziz.
Horrezaz gain, enpresa esleipendunak euskararen kalitatea bermatu beharko du sortu beharreko testu guztietan (gonbidapenak, gidoia…). Euskarri guztietan erabiliko den euskara, euskara batua izango da. Gramatika arau ofizialetan oinarritutakoa, hain zuzen.

3.4. Logoak eta markak

Edozein euskarritako diseinua dela-eta, Eusko Jaurleritzaren logoaren eta Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak egoki jotzen duen markaren erabilera egokia bermatuko da.

4. <u>Gainbegiraketa eta kontrola</u>

1.- Administrazioari dagokio lanak etengabe eta zuzenean aztertzea eta ikuskatzea. Hori lortzeko, enpresa esleipendunak lanaren edozein prozesu edo fasetan ikuskapenak egiten utziko dio, eta lan hori enpresa esleipendunaren egoitzan bertan egiteko beharrezko baliabide guztiak emango dizkio.

2.- Administrazioaren ordezkari batek kontrolatuko du lana, enpresa esleipendunak hartutako konpromisoak egoki betetzen dituen gainbegiratzeko. Enpresak ikuskatze-lanak erraztu behar ditu eta eskatzen zaion informazio guztia eman. Horrezaz gain, lan-zuzendariari jakinarazi beharko zaizkio lana egiterakoan sortutako gertakariak, bileren bidez, eta amaitutako lan-unitateen laburpenak egin eta jakinaraziko ditu. Lanaren segimendua egiteko bileren egutegia ezarriko da.

3.- Era berean, esleitutako proposamena egokitu nahi bada, horrek Administrazioaren ordezkariaren onarpena beharko du, eta ordezkari horrek lanaren ildoak aldatu ahal izango ditu edozein unetan.

5. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.

Ekitaldiak zein horren aurretik gauzatu beharreko lanek genero ikuspegia txertatu beharko du, horretarako honako neurriak hartu eta bermatuko ditu, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz:

- Hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen (irudiak barne) erabilera ez-sexista egin beharko da.
- Era berean komunikazioan emakumeen parte-hartze aktiboa eta sexu bien presentzia orekatua eta irudi anitza bermatu behar da edertasun-kanonetatik eta sexu bakoitzak bizitzako arloetan betetzen dituen eginkizunei buruzko estereotipo sexistetatik aparte.
- Emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua sustatuko da (orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkaritza, gutxienez, dutenean joko da)
- Ekitaldiaren diseinu osoak irisgarritasuna bermatu beharko du dibertsitate funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan harturik.
- Ekitaldiaren datuen bilketan sexuaren aldagaia jasoko da eta datu horien ustiaketan eta irakurketan genero ikuspegia txertatuko da.

6. Bukaerako txostena

Enpresa esleipendunak emandako zerbitzuei buruzko txostena aurkeztuko du ekitaldia bukatutakoan (gehienez ere 5 eguneko epean), eta horrekin batera ekitaldirako sortutako materiala eta hedabide desberdinetan izandako jarraipenaren berri ere emango dio HPSko Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari.

Gasteiz,

Edurne Ramon Olano

Firmado digitalmente por Edurne Ramon Olano
Fecha: 2021.06.11 16:00:01 +02'00'

Edurne Ramon Olano
Hizkuntza-plangintzaren arduraduna
Euskara Sustatzeko zuzendaritza